

L E G E A K 20 L E Y E S

Ikus-entzunezko Komunikazioari
buruzko Lege Orokorra

Ley General de la
Comunicación Audiovisual



CIP. Unibertsitateko Biblioteka/Biblioteca Universitaria

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.eus/argitalpenak - editorial@ehu.eus

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9082-

IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOARI BURUZKO
LEGE OROKORRA

LEY GENERAL DE LA
COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL

MARIA NIEVES ARRESE IRIONDO

*UPV/EHUko Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea
eta Zuzenbidearen Filosofia saileko irakaslea*

IRENE ALDASORO KATARAIN

Itzultzailea

JUAN KRUZ IGERABIDE SARASOLA

UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

ANA LETURIA NAVAROA

*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Bildumaren koordinatzailea*



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ÍNDICE

AURKIBIDEA

Prólogo, Iñaki Lasagabaster Herrarte	8
Presentación, Nieves Arrese Iriondo	12
Ley 7/2010, de 31 de marzo, General de la Comunicación Audiovisual	17
LÉXICO	179

Hitzaurrea, Iñaki Lasagabaster Herrarte	9
Aurkezpena, Nieves Arrese Iriondo	13
7/2010 Legea, martxoaren 31koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorra	17
LEXIKOA	176

Prólogo

La Ley General de la Comunicación Audiovisual es una Ley de importancia fundamental en la sociedad de la información actualmente existente. La regulación de este sector tiene importancia desde perspectivas muy diferentes. Los actores y las administraciones competentes son también diversas. El significado de la Ley de Comunicación Audiovisual afecta a aspectos vinculados a la evolución tecnológica del sector, especialmente con la superación de la radiotelevisión analógica y el paso a la digital. De la escasez de posibilidades de transmisión a la existencia de amplias posibilidades, la evolución es significativa y ha tenido un efecto muy importante en las concepciones jurídicas aplicadas en este campo. Esta evolución tecnológica afecta también a la economía, a los derechos fundamentales, a los derechos de los consumidores, entre otros aspectos. Los principios que rigen en cada uno de ellos son con frecuencia contradictorios. La afirmación de la libre competencia como principio rector de la actividad económica choca frontalmente en este campo con la necesidad de garantizar el pluralismo en la utilización de los medios. Por otra parte, la existencia de culturas dominantes, vinculadas a un idioma que tiene garantizada su vida y expansión sin necesidad de ayudas, se encuentra también con lenguas y culturas de menor alcance, en las que la aplicación de los principios y derechos que rigen en general para todas situaciones significaría condenar a la imposibilidad el desarrollo de sectores audiovisuales vinculados a esas culturales. Este puede ser el caso de los medios de comunicación en euskara. La realidad pone de manifiesto que el principio de libre competencia hace con frecuencia tabla rasa del pluralismo, condicionando la opinión pública, función tan importante a cumplir por los medios de comunicación. Esta situación es evidente como lo pone de manifiesto el poder de los grandes propietarios de medios de comunicación. El respeto que frente a ellos manifiesta el poder político es evidente. El pluralismo encuentra verdaderos problemas para estar en vigor en la sociedad de la comunicación. La

Hitzaurrea

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra funtsezko lege bat da gaur egungo informazio-gizartean. Sektore hori arautzeak ikuspuntu askotatik du garrantzia. Parte-hartzaleak eta administrazio eskudunak ere askotarikoak dira. Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Legeak sektore horren bilakaera teknologikoarekin loturiko alderdiei eragiten die, batez ere irratia-telebista analogikoak atzera utzi eta digitaletara jauzi egin denez geroztik. Transmisio-aukera urriak izatetik aukera zabala izatera pasatzea bilakaera esanguratsua da, eta oso eragin garrantzitsua izan du alor horretan aplikatutako ikuskera juridikoetan. Bilakaera teknologiko horrek orobat eragiten die ekonomiari, oinarrizko eskubideei, eta kontsumitzaileen eskubideei, besteak beste. Horietariko bakoitza eraentzen duten printzipioak kontrajarriak izaten dira askotan. Lehia librea jarduera ekonomikoaren printzipo gidaritzat ezartzeak talka egiten du, arlo honetan, hedabideen erabilera aniztasuna bermatu beharrarekin. Bestalde, kultura menderatzaleak dauden lekuau, bizia eta zabalkunde laguntza beharrik gabe bermaturik dituen hizkuntza batilatuak, badira hedadura txikiagoko hizkuntzak eta kulturak ere, zeinei aplikatuko balitztaizkie egoera guztietan oro har aplikatuko beharreko printzipioak eta eskubideak, garatzeko aukerarik gabe geratuko bailirateke kultura horiei loturiko ikus-entzunezko sektoreak. Hori izan liteke euskarazko hedabideen kasua. Errealitateak erakusten du ezen lehia librearen printzipoak, sarritan, bazterrean uzten duela aniztasuna, eta iritzi publikoa baldintzatzen, hura izanik hedabideek bete beharreko funtzio hain garrantzitsua. Egoera hori begien bistakoa da, hedabideen jabe handien botereak hala uzten baitu agerian. Bistakoa da botere politikoak haien aurrean erakusten duen errespetua. Aniztasunak benetako arazoak ditu komunikazioaren gizartean indarrean egoteko. Legeak, formalki, aniztasunaren printzipioa babesten du, baina, ezartzen dituen tresnekin, nekez bermatu ahal izango du hedabide-sektore pluralista bat,

Ley formalmente defiende el principio de pluralismo, pero con los instrumentos que establece difícilmente va a poder garantizar un sector de medios de comunicación pluralista y que desarrolle un sistema realmente democrático. Esta afirmación es fácilmente constatable en la realidad. Frente a la afirmación demasiado simple de que en la actualidad el derecho a recibir y comunicar información está mejor garantizado que anteriormente, en especial por el desarrollo tecnológico, contrasta con la dificultad que encuentra poder recibir las emisiones de Euskal Irrati Telebista (EITB) en Nafarroa. Esta realidad nos enfrenta con crudeza a una política limitadora de derechos de las personas que quieren recibir y comunicar información en euskara que se está dando en Nafarroa.

La Ley también regula los derechos de los ciudadanos, el reparto competencial y algunos entes estatales como el Consejo Estatal de Medios Audiovisuales. El año 2013 ve cómo se crea la Comisión Nacional de Mercados y de la Competencia, que asume muchas de las competencias previstas para el Consejo Estatal de Medios Audiovisuales, haciendo tabla rasa de un principio que debiera de regir en este campo, que es del pluralismo real en los medios. Frente a ello, como demuestra este hecho, el principio de libre competencia es el que va a caracterizar el desarrollo del sector, teniendo el resto de principios y cuestiones un carácter meramente accidental en esta materia.

La importancia del sector es evidente. El conocimiento de su regulación necesario. La docencia e investigación en esta materia tienen una gran trascendencia y de aquí el acierto de haber decidido la traducción de esta norma.

IÑAKI LASAGABASTER HERRARTE
Profesor catedrático de Derecho Administrativo de la UPV/EHU

sistema benetan demokratiko bat garatuko duena. Errealitatean erraz egiazta daitekeen baieztapena da hori. Gaur egun garapen teknologikoari esker informazioa jaso eta komunikatzeko eskubidea lehen baino hobeto bermatutik dagoelako baieztapen simplegiaren aurrean, bestelako egoera erakusten du EITB, Euskal Irrati Telebistaren emisioak Nafarroan jasotzeko dagoen zailtasunak. Errealitate horrek modu gordinean jartzen digu aurrez aurre informazioa euskaraz jaso eta komunikatu nahi duten pertsonen eskubideei dagokienet Nafarroan gertatzen den politika murriztailea.

Legeak orobat arautzen ditu herritarren eskubideak, eskumen-banaketa eta zenbait erakunde estatal, hala nola Ikus-entzunezko Hedabideen Estatu Kontseilua. 2013 urtean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortu zen, eta hark hartzen ditu bere gain Ikus-entzunezko Hedabideen Estatu Kontseiluarentzat aurreikusitako eskumen asko, bazter utzirik alor horretan nagusi behar lukeen printzipio bat, hau da, hedabideen egiazko aniztasunarena. Horren aurrean, egitate horrek frogatzen duenez, lehia librearen printzipioak ezaugarrituko du sektorearen garapena, gainerako printzipioek eta arazoek izaera akzidental hutsa dutelarik gai horretan.

Sektorearen garrantzia bistakoa da. Haren arauen ezagutza, beharrezkoa. Irakaskuntzak eta ikerketak axola handia dute gai horretan, eta, horregatik, ondo hartua da arau hau itzultzeko erabakia.

IÑAKI LASAGABASTER HERRARTE
UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakasle katedraduna

Presentación

El mundo audiovisual tiene gran relevancia en la sociedad actual. Si bien hasta fechas relativamente recientes la comunicación audiovisual se ceñía a la radio y la televisión analógica, hoy en día el avance tecnológico en la materia ha supuesto, entre otras cosas, una gran variedad de recursos comunicativos. La trascendencia de la Ley General de Comunicación Audiovisual radica en establecer, por una parte, los derechos del público receptor así como de los prestadores del servicio de comunicación audiovisual y, por otra, el régimen jurídico básico en el que se ha de desarrollar el servicio de comunicación audiovisual, incluyendo el régimen sancionador.

La Ley diseña un marco básico de aplicación general para todos los prestadores del servicio de comunicación audiovisual, que incluye tanto a los estatales, como autonómicos y locales. Quedan excluidos de su ámbito de aplicación los sitios web de titularidad privada y los que tengan por objeto contenido audiovisual generado por usuarios privados.

En cuanto a los derechos del público, la Ley, tras remarcar la importancia de que la comunicación audiovisual sea plural y transparente, así como que respete la diversidad cultural y lingüística, se centra, por una parte, en asegurar la integridad de los menores, estableciendo límites a determinados contenidos audiovisuales. En segundo lugar, se adoptan medidas para garantizar el acceso a la comunicación audiovisual de las personas con discapacidad. También se regula el derecho del público a participar en el control de los contenidos audiovisuales, permitiendo que puedan presentarse denuncias cuando se aprecien infracciones por parte de los prestadores del servicio.

Aurkezpena

Ikus-entzunezkoen munduak erabateko garrantzia dauka gaur egungo gizartearen. Orain urte gutxi arte ikus-entzunezkoen komunikazioa irratia eta telesbista analogikoetara mugaturik bazegoen ere, egun arloko aurrerapen teknologikoak, besteak beste, komunikaziorako baliabide ugari ekarri ditu. Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren garrantzia honako honetan datza: batek, ikus-entzunezkoen hartzileen eskubideak zehazten ditu, bai eta ikus-entzunezkoen komunikazio-zerbitzuaren emaileenak ere, eta, bestetik, ezartzen du zer oinarrizko erregimen juridikotan garatu beharrekoa den ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua, zehapen-erregimena barne.

Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaile guztiei, estatukoak, autonomikoak zein tokikoak, aplikagarri zaien oinarrizko esparrua diseinatzen du legeak. Haren aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira titularitate pribatuko webguneak eta erabiltzaile pribatuek sortutako ikus-entzunezko edukiak dituztenak.

Ikus-entzuleen eskubideei dagokienez, Legeak, aurrena, azpimarratzen du zein garrantzizkoak diren pluraltasuna eta gardentasuna ikus-entzunezko komunikazioan, bai eta kultura- eta hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua ere, eta, gero, adingabeen osotasuna bermatu beharra ezartzen du, zenbait ikus-entzunezko edukiri mugak ezarriz. Hurrena, ezgaitasunak dituzten pertsonei ikus-entzunezko komunikaziorako sarbidea bermatzeko neurriak onartzen ditu. Ikus-entzunezko edukien kontrolean ikus-entzuleek parte hartzeko duten eskubidea ere arautzen da, salaketak aurkezteko bidea emanez zerbitzu-emai-leek eginiko arau-haustea atzematen dituztenean.

El reconocimiento de los derechos de los prestadores del servicio de comunicación audiovisual comienza con la referencia a la libertad en la dirección editorial, el derecho de acceso a los servicios de comunicación electrónica y el derecho a la autorregulación. A continuación la Ley regula el derecho a las comunicaciones comerciales, especificando en qué condiciones cabe la creación de canales de comunicación comercial y anuncios de autopromoción, así como estableciendo las reglas para emitir mensajes publicitarios, mensajes de venta, patrocinio y emplazamiento de productos. El apartado relativo a las comunicaciones comerciales concluye con un listado de aquéllas que están prohibidas. Otros aspectos fundamentales que se abordan son los referidos a la contratación de la emisión en exclusiva de contenidos audiovisuales y a la potestad para excluir la emisión codificada de acontecimientos de interés general para la sociedad.

Los preceptos relativos a la regulación y coordinación del mercado de comunicación audiovisual se refieren fundamentalmente a las reglas para ser titular de licencias audiovisuales, su duración, extinción, etc. También se contienen disposiciones sobre la libertad de recepción de los servicios de comunicación audiovisual prestados desde fuera de España.

La Ley reserva uno de sus Títulos a los prestadores públicos del servicio de comunicación audiovisual, detallando lo que se ha de entender por servicio público, su control, los límites a los que están sometidos y su financiación.

Por último, se regula el régimen sancionador básico. El procedimiento se remite a la normativa administrativa sancionadora general, sin perjuicio de la intervención de las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus competencias. La Ley concluye con el listado de infracciones (muy graves, graves y leves), de las correspondientes sanciones, así como con la determinación de la responsabilidad por la comisión de infracciones.

Nieves ARRESE IRIONDO
Departamento de Derecho Administrativo, Constitucional
y Filosofía del Derecho de la UPV/EHU

Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileen eskubideen aintzates-pena edizio-zuzendaritzari, komunikazio elektronikoaren zerbitzuari eta au-torregulazioari eginiko erreferentziarekin hasten da. Jarraian, Legeak komuni-kazio komertzialetarako eskubidea arautzen du, zehaztuz zer baldintzatan sor daitezkeen komunikazio komertzialerako eta autopromoziorako kateak, bai eta publizitate-mezuak, salmenta-mezuak, patrozinioa eta produktu-kokapenak emititzeko arauak finkatuz ere. Komunikazio komertzialei buruzko atalari az-kena emateko, debekaturik daudenek zerrenda ageri da. Arautzen diren beste kontu batzuk honako hauek dira: ikus-entzunezko edukiak esklusiban emititzea eta gizartearentzat interes orokorrekoak diren gertakariak emisio kodetutik kanpo uzteko ahala.

Ikus-entzunezko komunikazioaren merkatuaren arauketa eta koordina-zioari buruzko artikuluak nagusiki ikus-entzunezko lizentzien tituludun izateko baldintzak, lizentzien iraupena, amaiera, eta abarri buruzkoak dira. Espainiatik kanpo emandako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua jasotzeko askatasu-nari buruzko xedapenak ere biltzen dira.

Legearen titulu batean ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaile publikoak arautzen dira. Bertan zerbitzu publikoa zer den, nola kontrolatu behar den, zer mugaren mende dagoen eta nola finantzatzen den zehazten da.

Azkenik, oinarrizko zehapen-erregimena arautzen da. Administrazio-zeha-penei buruzko araubide erkidera igortzen du prozedurak, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoei zeini bere eremuan erreserbaturiko eskumenak. Legearen hondarrean, arau-hausteen zerrenda (oso larriak, larriak eta arinak), bakoitzari dagokion zigorra eta arau-haustea egitearen erantzukizuna zehazten dira.

Nieves ARRESE IRIONDO
UPV/EHUko Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea
eta Zuzenbidearen Filosofia saila

7/2010 LEGEA, MARTXOAREN 31KOA,
IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOARI BURUZKO
OROKORRA

LEY 7/2010, DE 31 DE MARZO,
GENERAL DE LA COMUNICACIÓN
AUDIOVISUAL

PREÁMBULO

La industria audiovisual se ha convertido en los últimos años en un sector cada vez con mayor peso y trascendencia para la economía. Los contenidos audiovisuales y su demanda forman parte de la vida cotidiana del ciudadano actual. No se concibe el mundo, el ocio, el trabajo o cualquier otra actividad sin lo audiovisual.

En los últimos años la comunicación audiovisual se ha basado en la explotación tradicional de la radio y televisión analógica condicionada por la escasez de espectro radioeléctrico y, por tanto, por una oferta pública y privada reducida y con un modelo de explotación muy asentado pero comercialmente poco sostenible.

La tecnología digital viene a romper con este modelo y plantea un aumento exponencial de las señales de radio y televisión gracias a la capacidad de compresión de la señal que se incrementa aumentando la calidad de la señal audiovisual. Aumenta el acceso a los medios audiovisuales y se multiplican las audiencias, pero, por esta misma razón, se fragmentan. Irrumpe Internet como competidora de contenidos. Los modelos de negocio evolucionan y se desplazan. Como consecuencia de todo ello, la normativa tiene que evolucionar con los tiempos y debe adaptarse a los nuevos desarrollos tecnológicos.

Se hace necesario por tanto, regular, ordenar con visión de medio y largo plazo, con criterios que despejen incertidumbres y den seguridad a las empre-

ATARIKOA

Ikus-entzunezkoen industria gero eta pisu eta garrantzi handiagoko sektore bihurtu da azken urteotan ekonomiarentzat. Ikus-entzunezko edukiak eta haien eskaria gaur egungo herritarraren eguneroko bizitzaren parte dira. Pentsaezina da mundua, aisialdia, lana edo beste edozein jarduera ikus-entzunezkorik gabe.

Azken urteetan, ikus-entzunezko komunikazioa irratiaaren eta telebista analogikoaren ustiaketa tradizionalean oinarritu da, irratifrekuentzien espektroaren urritasunak eta, beraz, eskaintza publiko eta pribatu murritzak baldintzaturik, eta oso ustiapen-eredu finkatua baina, alderdi komertzialetik, iraunkortasun gutxikoa izan du.

Teknologia digitala eredu hori haustera dator, eta irratitelebistetako seinaleen handitze esponentziala planteatzen du seinalea konprimitzeko gaitasunari esker, seinalea handitu egiten baita, eta ikus-entzunezko seinalearen kalitatea, berriz, hobetu. Ikus-entzunezko hedabideetarako sarbidea handitu egiten da eta entzuleriak, berriz, biderkatu, baina, arrazoi horregatik beragatik, zatikatu. Internet edukien lehiakide gisa agertzen da. Negoziokeriek bilakaera izaten dute eta tokialdatu egiten dira. Horren guztiaren ondorioz, araudiai ere garaien arabera aldatu behar du eta garapen teknologiko berrietara egokitu.

Beharrezkoa da, bada, arautzerakoan eta ordenatzerakoan, epe ertain eta luzerako ikuspegia izatea; ziurgabetasunak aienatu eta enpresei segurtasuna

sas y con la intención de proteger al ciudadano de posiciones dominantes de opinión o de restricción de acceso a contenidos universales de gran interés o valor.

Así lo han entendido los países más avanzados y la propia Unión Europea que a través de Directivas ha establecido y perfecciona periódicamente normas que configuran un régimen básico común que garantice el pluralismo y los derechos de los consumidores.

Directivas que obligatoriamente deben transponerse a la legislación española. Esa es una de las funciones de esta Ley, la transposición de la Directiva 2007/65/CE de Servicios de Comunicación Audiovisual del Parlamento Europeo y del Consejo de 11 de diciembre del 2007.

Pero no es sólo este el objetivo de la Ley General de la Comunicación Audiovisual. Hoy España dispone de una legislación audiovisual dispersa, incompleta, a veces desfasada y obsoleta, con grandes carencias para adaptarse a los tiempos y, por tanto, permanentemente sometida a cambios frecuentes, vía decreto o subsumida en otras leyes de temática diversa. Nos encontramos pues ante una normativa vigente, alejada de la realidad, y limitativa que en su origen, nació con vocación de transitoriedad pero que se ha perpetuado más tiempo del inicialmente previsto.

Consecuentemente, esta Ley pretende compendiar la normativa vigente aún válida, actualizar aquellos aspectos que han sufrido importantes modificaciones y regular las nuevas situaciones carentes de marco legal. Y todo ello con la misión de dar seguridad jurídica a la industria y posibilitar la creación de grupos empresariales audiovisuales con capacidad de competir en el mercado europeo y la apertura regulada de nuevos modelos de negocio como son la TDT de pago, la Alta Definición y la TV en Movilidad; y hacerlo garantizando también, el pluralismo y la protección de los derechos ciudadanos; al mismo tiempo que se fijan unas reglas de transparencia y competencia claras en un contexto de convivencia del sector público con el privado y de liberalización de la actividad audiovisual.

Esta normativa general de referencia ha sido una demanda del sector audiovisual en su conjunto y de los consumidores desde hace años. Esta Ley por tanto nace con la vocación de aprobar una asignatura pendiente de nuestra democracia, superar el disenso y alcanzar un acuerdo para una reforma que quiere ver la luz con voluntad de permanencia. Una ley que codifique, libere y modernice la vieja y dispersa normativa española actual, otorgue seguridad y estabilidad al sector público y privado, a corto y medio plazo, mediante

emango dien irizpideak erabiltzea eta herritarra iritzi-jarrera nagusietatik edo interes edo balio handiko eduki unibertsalako sarbidea murriztetik babes-teko asmoz jokatzea.

Hala ulertu dute herrialde aurreratuenek eta Europar Batasunak berak, zeinak zuzentarauen bidez zenbait arau ezarri eta, aldian-aldian, hobetzen baitu, hartara aniztasuna eta kontsumitzaleen eskubideak bermatuko dituen oinarrizko araubide erkide bat eratzu.

Espainiar legeriara nahitaez aldatu beharreko zuzentaraauak dira horiek. Hori da lege honen eginkizunetariko bat: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuei buruz 2007ko abenduaren 11n emandako 2007/65/EE Zuzentaraauaren transposizioa egitea.

Baina ez da hori Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Legearen helburu bakarra. Espainiak gaur egun ikus-entzunezkoei buruz duen legeria sakabanatua eta osatu gabea da; zenbaitetan, desfasatura eta zaharkitua, eta garaiera- tara egokitzeko gabezia handiak dituena, eta, beraz, etengabe aldaketak egin behar zaizkiona, dekretu bidez edo bestelako gaiei buruzko legeen barruan sartuz. Indarrean daukagun araudia, bada, errealitatetik urrun dago eta mugatzalea da, eta jatorrian aldi baterako izateko asmoz jaio bazen ere, hasieran aurreikusi baino denbora gehiagoan luzatu da.

Ondorioz, lege honen asmoa da indarrean dagoen eta oraindik baliozkoa den araudia laburbiltzea, aldaketa handiak izan dituzten alderdiak eguneratzea eta lege-esparrurik gabeko egoera berriak arautzea. Horren guztiaren egitekoa delarik industriari ziurtasun juridikoa ematea eta ahalbidetza, alde batetik, europar merkatuan lehiatzeko gaitasuna izango duten ikus-entzunezko enpresataldeak sortzea, eta, bestetik, negozio-eredu berriak modu arautuan irekitzea, hala nola ordainpeko LTDa, Bereizmen Handia, eta Telebista Mugikorra; eta, hori, aniztasuna eta herritarren eskubideak bermatuz egitea; aldi berean gardentasun- eta lehia-arau garbiak finkatuz sektore publikoa eta pribatua elkarrekin biziko diren eta ikus-entzunezko jarduera liberalizatuko den testuinguru batean.

Erreferentziazko araudi orokor hori ikus-entzunezkoen sektore guztiaren eta kontsumitzaleen eskakizun bat izan da urteetan. Lege hau, bada, gure demokraziak gainditu gabe duen ikasgai bat gainditzeko asmoz jaiotzen da; adostasunik eza atzean utzi eta irauteko borondatez argia ikusi nahi duen erreforma baterako akordio bat iristeko asmoz. Gaur egungo espainiar araudi zahar eta sakabanatua kodetu, liberalizatu eta mordernizatuko duen lege bat, epe laburrera eta ertainera sektore publikoari eta pribatuari segurtasuna eta egonkortasuna

un marco jurídico básico suficientemente flexible para adaptarse al dinamismo que por definición tienen este sector ante la vertiginosa y continua evolución tecnológica.

Esta ley debe entenderse también, inmersa en el proyecto de reforma audiovisual del Gobierno emprendida en la legislatura anterior con la aprobación de la Ley 17/2006 de la Radio y la Televisión de Titularidad Estatal y complementada con la Ley de Financiación de la Corporación RTVE.

Y es que la Ley General de la Comunicación Audiovisual se presenta como norma básica no sólo para el sector privado sino también para el público fijando, con el más absoluto respeto competencial que marca nuestra Constitución, los principios mínimos que deben inspirar la presencia en el sector audiovisual de organismos públicos prestadores del servicio público de radio, televisión y servicios interactivos. Principios inspirados en la normativa y recomendaciones comunitarias sobre financiación pública compatible con el Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea, control independiente a través de organismos reguladores y garantía y protección de derechos.

En este sentido, la norma aspira a promover una sociedad más incluyente y equitativa y, específicamente en lo referente a la prevención y eliminación de discriminaciones de género, en el marco de lo establecido en materia de publicidad y medios de comunicación en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de protección integral contra la violencia de género y la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de hombres y mujeres.

Estos son los principios que inspiran el articulado de esta ley que regula la comunicación audiovisual de cobertura estatal y que en su sistemática ha colocado en primer lugar, tras los artículos de Objetivos, Definiciones y Ámbito de Aplicación, el reconocimiento de derechos. Así el Capítulo I del Título II está consagrado íntegramente a la garantía de los derechos de los ciudadanos a recibir comunicación audiovisual en condiciones de pluralismo cultural y lingüístico lo que implica la protección de las obras audiovisuales europeas y españolas en sus distintas lenguas, así como a exigir ante las autoridades la adecuación de los contenidos al ordenamiento constitucional vigente. Este capítulo trata de forma individualizada las obligaciones de los prestadores de servicios de comunicación audiovisual en relación a los menores y personas con discapacidad que merecen a juicio del legislador y de las instituciones europeas una protección especial.

En el Capítulo II de este Título II se incluyen los derechos de los prestadores del servicio de comunicación audiovisual que básicamente son el de prestar

emango diona, oinarrizko esparru juridiko bat sortuz, behar bezain malgua, sektore horrek, definizioz, teknologiaren ziztu biziko bilakaera etengabearen aurrean duen dinamismora egokitzeko.

Lege hau, orobat, Gobernuaren ikus-entzunezkoen erreforma-proiektuaren barruan ulertu behar da, zeina aurreko legegintzaldian abiatu baitzen Titular-tasun Estataleko Irratiaren eta Telebistaren 17/2006 Legea onartzearekin, eta RTVE Korporazioa Finantzatzeko Legearekin osatu.

Eta, izan ere, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Legea oinarrizko arau gisa aurkezten da, ez sektore pribaturako bakarrik, baizik eta baita publikorako ere, eta gure Konstituzioak markatzen duen eskumenekiko errespetu osoz finkatzen ditu irratia-zerbitzu publikoa, telebista-zerbitzu publikoa eta elkarrekintzazko zerbitzuak eskaintzen dituzten organismoek ikus-entzunezko sektorean izan beharreko gutxieneko printzipioak. Printzipo horien oinarri dira Europar Erkidegoa eratzeko Tratatuarekin bateragarri den finantzaketa publikoari buruzko araudia eta gomendioak, organismo erregulatzaleen bitartez egindako kontrol independentea eta eskubideen bermea eta babesea.

Ildo horretatik, gizarte barneratzaleago eta ekitate handiagoko bat sustatu nahi du legeak, bereziki genero-diskriminazioen prebentzioari eta desagerpenari dagokionez, Genero-indarkeriaren aurka babes osoa emateko neurriei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan publizitate- eta hedabide-gaietan ezarritakoaren esparruan.

Printzipo horietan oinarritzen da artikulu-testua lege honetan, zeinak estaldura estataleko ikus-entzunezko komunikazioa arautzen baitu eta bere sistematikan lehendabiziko lekuaren kokatzen, Helburuak, Definizioak eta Aplikazio-eremuaren ondoren, eskubideen aitortza. Hala, herritarrek ikus-entzunezko komunikazioa kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren baldintzetan jasotzeko dituzten eskubideei eskaintzen zaie II. tituluko I. kapitulua, eta horrek berekin dakar Europako eta Espainiako hizkuntza batzuetan zein besteetan eginiko ikus-entzunezko obrak babestea eta, orobat, agintarien aurrean galdatzea egokituz daitezela edukiak indarrean dagoen konstituzio-ordenamendura. Kapitulu horretan banan-banan tratatzen dira ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileek adingabeekiko eta ahalmen-urritisunak dituzten pertsonekiko dituzten eginbideak, zeinek babes berezi bat merezi baitute legegilearen eta europar instituzioen iritzian.

II. titulu horretako II. kapituluan sartzen dira ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileen eskubideak, zeinak baitira, funtsean, zerbitzu hori as-

ese servicio en condiciones de libertad en cuanto a selección de contenidos, línea editorial y emisión de canales.

Libertad absoluta en el caso de las comunicaciones electrónicas. La posibilidad y condiciones de autorregulación y de emisión de contenidos publicitarios constituyen otros dos grandes apartados de derechos que se consagran en esta ley.

La regulación de la publicidad, conforme a los criterios establecidos por la Directiva Comunitaria ya citada, ocupa una parte importante de esta Ley. Está concebida como un instrumento de protección del consumidor frente a la emisión de mensajes publicitarios en todas sus formas en cuanto a tiempo y contenidos pero también con una normativa reguladora básica para impedir abusos e interpretaciones divergentes que han llevado, en el pasado, a la apertura de expedientes y discrepancias serias a la hora de interpretar los preceptos europeos. Y que, con esta Ley se pretende acabar al plantear un escenario claro e inequívoco alineado con la terminología y los postulados de la Comisión y el Parlamento Europeo.

Finalmente este Título II dedica un capítulo a la regulación de los derechos sobre contenidos en régimen de exclusividad en la que se protege el derecho a la información de todos los ciudadanos como derecho prioritario y se fijan límites a la exclusividad en función de criterios de interés general que aseguran la emisión en abierto de una serie de acontecimientos relacionados fundamentalmente con eventos deportivos de gran audiencia y valor. Para ello, se incluye una referencia normativa básica siguiendo los criterios, resoluciones y recomendaciones de las autoridades y organismos de vigilancia de la competencia españoles y europeos.

El Título III parte del principio de libertad de empresa y establece el régimen jurídico básico para la prestación de un servicio de comunicación audiovisual, diferenciando aquellos que sólo precisan de comunicación previa por estar su segmento liberalizado, de aquellos otros que por utilizar espacio radioeléctrico público a través de ondas hertzianas y tener capacidad limitada necesitan de licencia previa otorgada en concurso público celebrado en las condiciones que fija esta misma Ley.

Los principios de titularidad europea y de reciprocidad, que se incorporan a la legislación española en este sector, presiden este régimen jurídico. Con el objetivo de reforzar la seguridad se amplía hasta 15 años el período de concesión de licencia, actualmente en diez y, como novedades, se establece la renovación automática si se cumplen determinados requisitos y se reconoce la posibilidad de arrendar o ceder licencias en determinadas condiciones. También

katasun-baldintzetan ematea edukien hautaketari, ildo editorialari eta kanal-emisorari dagokionez.

Askatasun osoa komunikazio elektronikoen kasuan. Autoerregulaziorako eta eduki publizitarioak emititzeko aukera eta baldintzak dira lege honetan es-kubideei eskaintzen zaizkien beste bi atal handi.

Publizitatea lehen aipaturiko Europar Erkidegoko zuzentarauek ezarritako irizpideen arabera arautzearen gaiak hartzen du lege honen zati garrantzitsu bat. Kontsumitzalea babesteko tresna gisa pentsatuta dago, publizitate-mezuak denborari eta edukiari dagokionez beren forma guzietan emititzearen aurrean, baina baita oinarrizko araudi erregulatzairen gisa ere abusuak eta elkarrengandik urrunduriko interpretazioak saihesteko, zeinek, iraganean, espediente-irekitzeak eta desadostasun larriak ekarri baitituzte europar manuak interpretaterakoan. Eta zeinekin amaitu nahi baita lege honen bidez, jokaleku garbi eta zalantzarik uzten duen bat planteatuz, Europako Batzordeareen eta Parlamentuaren terminologia eta postulatueta bildua.

Azkenik, II. titulu honek kapitulu bat eskaintzen dio esklusibotasun-arau-bidea duten edukien gaineko eskubideen erregulazioari, hartin babesten delarik herritar ororen informazio-eskubidea, lehentasunezko eskubide gisa, eta esklusibotasunari mugak jartzen zaizkiolarik interes orokorreko irizpideen arabera, batez ere audientzia eta balio handiko kirol-ekitaldiekin erlazionaturiko zenbait gertakari irekian ematea ziurtatzeko. Horretarako, oinarrizko erre-rentzia normatibo bat sartzen da, lehia zaintzeko ardura duten spanishiar eta europar agintari eta organismoen irizpideak, ebazpenak eta gomendioak jarratuz.

III. titulua empresa-askatasunaren printzipiotik abiatzen da eta ikus-entzu-nezko komunikazio-zerbitzu bat emateko oinarrizko araubide juridikoa ezar-tzen du, zerbitzu hauek bereizten dituelarik: beren segmentua liberalizatua ego-teagatik aurretiazko adierazpena baino behar ez dutenak eta irrat-frekuentzien espazio publikoa uhin hertziar bidez erabiltzeagatik eta gaitasun mugatua iza-teagatik aurrez lizentzia behar dutenak, lege honetan bertan finkaturiko baldin-tzetan egindako lehiaketa publikoan emana.

Europar titulartasunaren eta elkarrekikotasunaren printzipioak gailentzen dira araubide juridiko horretan: sektore honetako spanishiar legeriari ekartzen diren printzipioak. Segurtasuna indartzeko helburuz, 15 urtera luzatzen da li-zentzia emateko epea, orain hamarrean baitago, eta, berritasun gisa, berritze automatikoa ezartzen da, baldin eta betekizun jakin batzuk betetzen badira, eta lizentziak baldintza jakin batzuetan errentatzeko edo lagatzeko aukera aitor-

como un derecho de los titulares de las licencias se regula el acceso condicional o de pago, limitándolo a un 50% de los canales concedidos a cada licencia para garantizar una extensa oferta de televisión en abierto.

Otra de las novedades de esta Ley es el reconocimiento del derecho de acceso a los servicios de comunicación electrónica en condiciones plenas de interactividad, las emisiones en cadena de los servicios de comunicación radiofónicos y los servicios de comunicación audiovisual comunitarios concebidos únicamente sin finalidad comercial.

El Título III dedica una sección a los denominados «Nuevos entrantes tecnológicos» o nuevas formas de comunicación audiovisual. Esencialmente TV en Movilidad, Alta Definición e Interactividad, permitiendo la posibilidad de decodificadores únicos que permitan acceder a los servicios interactivos de todas las ofertas.

El Título III finaliza con un conjunto de artículos destinados a garantizar el pluralismo y la libre competencia en el mercado radiofónico y televisivo dada la importancia que tienen estos medios en la formación de la opinión pública. Se reconoce el derecho a poseer participaciones significativas en varios prestadores de servicios estatales de comunicación, pero se limita ese derecho si en el momento de la fusión o compra de acciones se acumula más del 27% de la audiencia. Se ha optado por el criterio de audiencias a la hora de evaluar posiciones de dominio en el mercado siguiendo las soluciones recogidas por la más reciente legislación de los países europeos en la materia.

Asimismo, un solo titular no podrá tener participaciones significativas en prestadores de servicios de comunicación audiovisual que acumulen más de dos múltiplex ocho canales y en todo caso deben garantizarse un mínimo de tres operadores privados estatales.

El Título IV se ocupa íntegramente de la normativa básica del Servicio Público de radio, televisión y oferta interactiva, respetando el sistema competencial fijado en la Constitución Española. En concreto, se refiere a los objetivos generales que debe buscar este servicio público como son: difundir contenidos que fomenten los valores constitucionales, la formación de opinión pública plural, la diversidad lingüística y cultural y la difusión del conocimiento y las artes, así como la atención a las minorías. Los objetivos deberán concretarse cada nueve años por los Parlamentos u órganos similares a nivel autonómico y local.

Asimismo, esta Ley supone un alineamiento con las Directivas, Comunicaciones, Decisiones y Recomendaciones de las instituciones europeas sobre los servicios públicos de radiodifusión en relación a la compatibilidad de su finan-

tzen. Lizentziaren titularren eskubide gisa, baldintzapeko edo ordainpeko sarbidea ere arautzen da, eta lizentzia bakoitzari emandako kanalen % 50era mugatzen, telebista irekiko eskaintza zabal bat bermatzeko.

Lege honen beste berritasunetariko bat honako zerbitzu hauetara sarbidea izateko eskubidearen aitorpena da: komunikazio-zerbitzu elektronikoetara elkarrekintzazko baldintza guztiak betez, irratia bidezko komunikazio-zerbitzuen kate-emisioetara eta soilik helburu komertzialik gabe sorturiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu komunitarioetara.

III. tituluak atal bat eskaintzen die «Sarle teknologiko berriak» direlakoei, hau da, ikus-entzunezko komunikazio-forma berriei. Funtsean, TB Mugikorra, Bereizmen Handia eta Elkarrekintza, eskaintza guztien zerbitzu elkarrekintzazkoetara sartzea ahalbidetzen duten deskodegailu bakarren aukera emanet.

III. tituluaren amaieran, irratia-telebisten merkatuan aniztasuna eta lehia librea bermatzera bideraturiko artikulu sorta bat ematen da, kontuan izanik hedabide horiek duten garrantzia iritzi publikoa eratzean. Komunikazio-zerbitzu estatalen zenbait emailetan partaidetza esanguratsuak izateko eskubidea aitorzten da, baina eskubide hori mugatu egiten da baldin eta bat-egitearen unean edo akzioak erosteko unean audientziaren % 27 baino gehiago metatzen bada. Audientziaren irizpidea aukeratu da merkatuko nagusitasun-egoerak balioestera-koan, europar herrialdeek arlo horretan duten legeria berrienean jasotzen diren irtenbideak jarraituz.

Era berean, titular bakar batek ezin izango du partaidetza esanguratsurik bi multiplex —zortzi kanal— baino gehiago metatzen dituzten ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emailetan eta, edozein kasutan, gutxienez hiru operadore pribatu estatal bermatu beharko dira.

IV. titulu osoa Irrati, telebista eta elkarrekintzazko eskaintzaren Zerbitzu Publikoaren oinarritzko araudiari buruzkoa da, Espainiako Konstituzioan fin-kulturiko eskumen-sistema gordez. Zehazki, zerbitzu publiko horrek izan behar dituen helburu orokorrean dihardu, hala nola: konstituzio-balioak sustatzen dituzten edukiak zabaltzea; askotariko iritzi publiko eratzea; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna, eta ezagutzaren eta arteen zabalkundea, eta baita gutxiengoen arreta ere. Helburuak bederatzi urtez behin zehaztu beharko dituzte Legebiltzarrak edo maila autonomikoko eta tokiko antzeko organoek.

Era berean, lege honek bat egiten du europar instituzioen zuzentara, adierazpen, erabaki eta gomendioek irratia-hedapeneko zerbitzu publikoek buruz ezarritakoarekin, haien finantzaketa Europar Erkidegoa eratzeko Tratatuare-

ciación con el Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea en lo relativo a ayudas estatales y a la contabilización del coste neto del servicio público así como a la posibilidad de crear fondos de reserva; a la necesidad de evaluación previa sobre incidencia en el mercado audiovisual nacional ante la introducción de nuevos servicios y, finalmente al control por organismos reguladores independientes del cumplimiento de la misión de servicio público encomendado.

Y es precisamente, la creación y regulación de la Autoridad Audiovisual estatal la que ocupa el Título V de esta Ley. El Consejo Estatal de Medios Audiovisuales (CEMA) será el órgano regulador y supervisor del sector que ejercerá sus competencias bajo el principio de independencia de los poderes políticos y económicos.

Tendrá poder sancionador y sus miembros serán elegidos por mayoría cualificada de tres quintos del Congreso de los Diputados. Serán sus funciones principales garantizar la transparencia y el pluralismo en el sector y la independencia e imparcialidad de los medios públicos así como del cumplimiento de su función de servicio público. Se crea, asimismo, un Comité Consultivo de apoyo que garantice la participación de colectivos y asociaciones ciudadanas. Cierra el articulado el Título VI que contempla el régimen sancionador.

En las Disposiciones Transitorias se abordan las cuestiones relativas a la transición de modelos, los servicios de apoyo para las personas con discapacidad, los plazos de reserva para cuestiones como la obra europea o la producción independiente. Se garantiza la continuidad de un Catálogo de acontecimientos de interés general para la sociedad hasta la aprobación de un nuevo marco y se define el marco transitorio hasta la constitución del Consejo Estatal de Medios Audiovisuales. Finalmente en la Disposición Transitoria Novena, se establecen límites al aprovechamiento del dominio público radioeléctrico sobrevenido por la mejora tecnológica.

La Ley General de la Comunicación Audiovisual deroga en su totalidad doce Leyes y parcialmente otras seis y cuenta con ocho Disposiciones Finales.

En definitiva, la Ley General de la Comunicación Audiovisual articula la reforma del sector y dota a España de una normativa audiovisual acorde con los tiempos, coherente, dinámica, liberalizadora y con garantías de control democrático y respeto y refuerzo de los derechos de los ciudadanos, de los prestadores y del interés general.

kin bateragarria izateari dagokionez, tartean direnean laguntza estatalak eta zerbitzu publikoaren kostu garbia kontabilizatzea eta baita erreserba-funtsak sortzeko aukerak ere; ikus-entzunezkoen merkatu nazionalean zerbitzu berrien sarrerak duen eragina aldez aurretik ebaluatzea eta, azkenik, organismo erre-gulatzalee independenteek kontrolatzea ea betetzen den agindu zaion egitekoa, hau da, zerbitzu publiko izatea.

Eta, hain zuzen ere, Ikus-entzunezkoen arloko Estatu Agintaritza sortzeari eta arautzeari buruzkoa da lege honen V. titulua. Ikus-entzunezko Hedabideen Estatu Kontseilua (CEMA) izango da sektoreko organo erregulatzalea eta ikuskatzalea, zeinak botere politiko eta ekonomikoetatik independente izateko printzipioaren pean baliatuko baititu bere eskumenak.

Zehapen-ahalmena izango du eta Diputatuen Kongresuaren hiru bostenen gehiengo kualifikatuz aukeratuko dira haren kideak. Haren funtzio nagusia hauek bermatzea izango da: sektorearen gardentasuna eta aniztasuna, hedabide publikoen independentzia eta inpartzialtasuna, eta zerbitzu publiko izateko duen egitekoa betetzen dela. Sostengurako Konsulta Batzorde bat ere sortzen da, kolektiboen eta herritar-elkarrean parte-hartzea bermatuko duena. Artikulu-testua VI. titluarekin amaitzen da, zeinak zehapen-araubidea aurreikusten baitu.

Xedapen iragankorretan gai hauei buruzkoei heltzen zaie: eredu-trantsizioa; ahalmen-urritasunak dituzten pertsonentzako sostengu-zerbitzuak; erreserba-epeak europar obrarentzat edo ekoizpen independentearentzat, besteak beste. Gizartearentzako interes orokorreko gertakari-katalogo baten jarraitutasuna bermatzen da beste marko bat onartu arte, eta Ikus-entzunezko Hedabideen Estatu Kontseilua eratu bitarteko marko iragankorra zehazten da. Amaitzeko, bederatzigarren xedapen iragankorrean mugak ezartzen zaizkio hobekuntza teknologikoagatik gerora sorturiko irratii-frekuentzien jabari publikoaren ustiaketari.

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorrak hamabi lege osorik derogatzen ditu eta beste sei partzialki, eta zortzi amaierako xedapen ditu.

Azken batean, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorrak sektorearen erreforma artikulatzen du eta ikus-entzunezkoei buruzko araudi bat ematen dio Espainiari, garaiari egokitua, koherentea, dinamikoa, liberalizatzalea eta kontrol demokratikoa bermatuko duena, herritarren eta zerbitzu-emaileen eskubideak eta interes orokorra gordez eta indartuz.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto de la ley

Esta Ley regula la comunicación audiovisual de cobertura estatal y establece las normas básicas en materia audiovisual sin perjuicio de las competencias reservadas a las Comunidades Autónomas y a los Entes Locales en sus respectivos ámbitos.

Artículo 2. Definiciones

1. Prestador del servicio de comunicación audiovisual.

La persona física o jurídica que tiene el control efectivo, esto es, la dirección editorial, sobre la selección de los programas y contenidos y su organización en un canal o en un catálogo de programas. El arrendatario de una licencia de comunicación audiovisual tendrá la consideración de prestador de servicio.

2. Servicios de comunicación audiovisual.

Son servicios de comunicación audiovisual aquellos cuya responsabilidad editorial corresponde a un prestador del servicio y cuya principal finalidad es proporcionar, a través de redes de comunicaciones electrónicas, programas y contenidos con objeto de informar, entretenér o educar al público en general, así como emitir comunicaciones comerciales.

Son modalidades del servicio de comunicación audiovisual:

a) El servicio de comunicación audiovisual televisiva, que se presta para el visionado simultáneo de programas sobre la base de un horario de programación.

b) El servicio de comunicación audiovisual televisiva a petición, que se presta para el visionado de programas y contenidos en el momento elegido por el espectador y a su propia petición sobre la base de un catálogo de programas seleccionado por el prestador del servicio de comunicación.

c) El servicio de comunicación audiovisual televisiva en movilidad o «televisión en movilidad», que se presta para el visionado de programas y contenidos en un dispositivo móvil.

d) El servicio de comunicación audiovisual radiofónica, que se presta para la audición simultánea de programas y contenidos sobre la base de un horario de programación.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Legearen objektua

Lege honek estaldura estataleko ikus-entzunezko komunikazioa erregulatzen du eta ikus-entzunezko gaiei buruzko oinarrizko arauak ezartzen ditu, haragatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoei eta tokiko entitateei zeini bere eremuan erreserbaturiko eskumenak.

2. artikulua. Definizioak

1. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emailea.

Kanal batean edo programa-katalogo batean programak eta edukiak aukeratzeari eta haien antolatzeari dagokionez egiazko kontrola, hau da, edizio-zu-zendaritza duen pertsona fisikoa zein juridikoa. Ikus-entzunezko komunikazio-rako lizentzia baten errentaria zerbitzu-emailetzat joko da.

2. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak.

Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu dira: beren erantzukizun editoriala zerbitzu-emaile bat dagokion haien, helburu nagusi dutelarik komunikazio elektronikoen sareen bidez programak eta edukiak ematea publiko orokorra informatzeko, entretenitzeko edo heztekiko, eta baita komunikazio komertzialak emititzea ere.

Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren modalitate dira:

a) Telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua, zeina ematen baita programak aldi berean ikusteko programazio-ordutegi bat oinarri harturik.

b) Telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu eskarizkoa, zeina ematen baita programak eta edukiak ikusteko ikusleak aukeraturiko unean eta haren eskariz, komunikazio-zerbitzuaren emaileak aukeraturiko programa-katalogo bat oinarri harturik.

c) Telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu mugikorra edo «telebista mugikorra», zeina ematen baita programak eta edukiak gailu mugikor batean ikusteko.

